

ZOAZ OSLORA

Honako ariketa hauek dituzu:

- 1. Zuzen aukeratzen.** Aukeratu galderen erantzun zuzena Zoaz Oslora bideoa ikusi bitartean.
- 2. Zuzen erantzun.** Aurretik galderak irakurri. Ikusi bideoaren bigarren zatia berriro, eta erantzun zuzena markatu.
- 3. Proposamenak eta erreakzioak aurkitzen**

ZUZEN AUKERATZEN

Aukeratu galderen erantzun zuzena Zoaz Oslora bideoa ikusi bitartean. (nahi baduzu, galderak irakurri bideoa ikusi baino lehen).

1. Zer gertatu zaio Josuri oporrekin?

-
- Lide ez da etorriko Josu ikustera
- Pozik dago oporrekin
- Oporrik Gabe geratu da Lide

2. Amaiak hasiera-hasieratik konbentzitu du Josu?

- Ez: pixkanaka konbentzitu du
- Bai.

ZUZEN ERANTZUN

Aurretik galderak irakurri. Ikusi bideoaren bigarren zatia berriro, eta erantzun zuzena markatu.

1. Zein problema du Josuk Liderekin?

- Lide ez da inoiz etorri Oslotik Euskal Herrira
- Irailean ikusiko du Lide: berandu.
- Lide ez da sekula bueltatuko.

2. Zein dago lanpetuta?

- Lide soilik.
- Josu eta Lide.
- Josu soilik.

3. Zer uste du Amaiak Josu eta Lederen harremanaz?

- “Oso harreman serioa da”.
- “Josuk ez du Lide maite”
- “Lidek ez du Josu maite”

PROPOSAMENAK ETA ERREAKZIOAK AURKITZEN

Hemen dituzu euskaraz proposamenak egiteko eta proposamenei erantzuteko formula batzuk.

Proposamenak egiten:

Ba zoazte zuek bihar = Ba joan zuek bihar

Ba zatoz hona = Ba etorri zu hona

Ba zoaz etxera = Ba joan zu etxera

Proposamenei erantzuten:

Hara, ze ideia ona!

Agian arrazoi duzu!

Benetan ari zara?

Ze ideia txarra!

Adierazi zein diren Amaiaren proposamenak eta Josuren erreakzioa proposamen horien aurrean

JOSU.- Lide Oslon ari da ikasten, irailean joan zen, eta ez da bueltatu.

Oso gustora egongo da han.

AMAIA.- Eta? Non dago arazoa?

JOSU.- Ba hitz egin genuen Aste Santuan elkartzeko, baina orain esan dit ezin dela etorri, lan handia daukala.

AMAIA.- Ba zoaz zu!

JOSU.- Hara! Ez da ideia txarra.

1. Zein da Amaiaaren proposamena elkarrizketa honetan?

- Lide lanpetuta badago, ba zoaz zu!
- Lan handia badaukazu orain, ba zoaz irailean!
- Orain ezin baduzu, ba zoaz Aste Santuan!

2. Eta zein da Josuren erreakzioa?

- Zalantzaz erantzun dio Amaiari.
- Ideia okerra iruditu zaio.
- Ideia ona iruditu zaio.

AMAIA.- Josu, Lide ikusi nahi duzu?

JOSU.- Bai, horixe, 6 hilabete elkar ikusi gabe asko da.

AMAIA.- Ba zoaz, zoaz Oslora!

JOSU.- Agian, arrazoia daukazu. Oso gogorra da hórrela bizitzea, bera han eta ni hemen...

3. Zen da Amaiaaren proposamena elkarrizketa honetan?

- Lidek ikusi nahi bazaitu, ba zoaz Oslora!
- Urte-erdia pasa nahi baduzu Liderekin, zoaz Oslora!
- Gogorra bada Lide ez ikustea, ba zoaz Oslora!

4. Eta zein da Josuren erreakzioa?

- Zalantzaz erantzun dio.
- Ez du joan nahi: Oslon bizitzea gogorra delako.
- Ez zaio ondo iruditu.

TRANSKRIPZIOA

AMAIA.- Kaixo!

AMAIA.- A zer umorea!

JOSU.- Bale, bale, agur!

JOSU.- Aupa!

AMAIA.- Motel, a zer tonua! Dena ondo?

JOSU.- Bai, zorragarri.

AMAIA.- Orduan, zergatik zaude haserre?

JOSU.- Lide ez dator oportretan.

ETENA

AMAIA.- Zer gertatu da ba?

JOSU.- Bueno, ba Lide Oslon ari da ikasten, irailean joan zen, eta ez da bueltatu. Oso gustora egongo da han.

AMAIA.- Eta? Non dago arazoa?

JOSU.- Ba hitz egin genuen Aste Santuan elkartzeko, baina orain esan dit ezin dela etorri lan handia daukala.

AMAIA.- Ba zoaz zu!

JOSU.- Hara! Ez da ideia txarra.

AMAIA.- Ezin dut sinetsi, Josu. Ez zaizu bururatu?

JOSU.- Ez. Bueno, baina, nik ere lan handia daukat hemen...

AMAIA.- Josu, Lide ikusi nahi duzu?

JOSU.- Bai, horixe, 6 hilabete elkar ikusi Gabe asko da.

AMAIA.- Ba zoaz, zoaz Oslora!

JOSU.- Agian, arrazoia daukazu. Oso gogorra da hórrela bizitzea, bera han eta ni hemen...

AMAIA.- Josu, zuk ez duzu Lide maite. Bestela, aspaldi erosiko zenuen hegazkin-txartela Oslora joateko.

JOSU.- Bai, baina...ez badu nahi ni joatea?

AMAIA.- Ez zara serio ari, ezta?

JOSU.- Ez, neska, nola ba?

Ikastorduak

AMAIA.- Josu, zure neska-laguna bada, poztuko da. Eta bestela...
hobe duzue bakoitza bere aldetik joatea.

JOSU.- Arrazoi duzu, joan egingo naiz!

AMAIA.- Posible ote da?

JOSU.- Zer, zer esan duzu, Amaia?

AMAIA.- Ezer ez. Eta ni banoa, nire mutil-lagun ezkutuari visita egitera.
Gero arte! Aio!

ERANTZUNAK

Zuzen aukeratzen

- 1 . Lide ez da etorriko Josu ikustera
2. Ez: pixkanaka konbentzitu du.

Zuzen erantzun

- 1.Lide ez da inoiz etorri Oslotik Euskal Herrira.
2. Josu eta Lide
3. Josuk ez du Lide maite

Proposamenak eta erreakzioak aurkitzen

1. Lide lanpetuta badago, ba zoaz zu!
2. Ideia ona iruditu zaio.
3. Gogorra bada Lide ez ikustea, ba zoaz Oslora!
- 4 . Zalantzaz erantzun dio.